

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aia



Aurkibidea

Udalerria: Aia

Sarrera



Urola Kosta eskualdeko nekazal herri zabala da Aia, Pagoeta Parke Naturalaren magalean. Aiak eremu handia du eta bertan sakabanatuta daude 11 landaguneak: Altzola, Andatza, Arrutiegia, Elkano, Etxetaballa, Iruretaegia, Kurpidea, Laurgain, Olaskoegia, Santio Erreka, Urdaneta eta Kaskoa.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 2.000
- **Euskaldunak:** %95,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **20**
- Zintak: **30**
- Pasarteak: **152**
- Transkribatutakoak: **10**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **131**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskalkiak.eus
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Natividad Agirresarobe Beldarrain (1930)



Aian jaio zen, eliza ondoan dagoen Portitxenea etxean, 9 senideko familia batean. Bera zazpigarrena izan zen eta komunio txikia egin zuenean Hernanira joan zen ahizparen etxera hari laguntzera. Berehala ile-apaindegi bat jarri zuen ahizparenean eta ezkondu eta gero berriro bere etxean. Aita aiarra zuen eta ama, berriz, Hernanikoa. Bera 13 urtetatik Hernanin bizi izan da.

Enrike Aiestaran Agirre (1939)

Aiako baserri batean jaioa, lau senidetan txikiena. Baserriko lanetan ibilia, lantegi batean eta taxista bezala ere bai.

Maria Peregrina Aristi (1921)



Urdanetan jaio eta bertan bizi izan da beti. 23 urterekin ezkondu zen Markeskua baserrira, eta hantxe bizi da. Hamar seme-alaba izan ditu. Beti baserrian bizi eta bertan lan egindakoa izan da. Urdanetako kontuak aipatu zizkigun gehienbat: eskola, eliza, jolasak, jaiak eta erromeriak... Horrez gainera, baserriko lanak, zomorroak, senda-belarrak...

Mariano Arruti Lertxundi (1930-2022)



Olazabaltxiki baserrian jaio zen, sei senideren artean hirugarren. Ama baserri hartakoa zuen eta aita, berriz, Aiako Olarbieta baserrikoa. Baserriko bizimoduan hazi zen eta hala jarraitu izan zuen bere bizitzako zatirik handienean ere. Soldaduskan Afrikara joatea tokatu zitzaion eta han eman zituen hainbat hilabete. Ordurako ibilia zen Txankarta soinu-jotzailearekin soinua jotzen ikasten: handik eta hemendik deitzen zioten festak alaitzera joateko eta bizipen onak izan ditu horri esker. Bere jaiotetxera ezkondu zen eta 3 seme-alaba izan zituzten; zoritxarrez, alaba 6 urte zituela eraman zien gaixotasunak. Elkarrizketa egin zitzaionean Aian bizi zen umore ona eta argitasuna lagun zituela.

Eneko Balerdi Eizmendi (1981)



Eneko Balerdi aiarra, dantzaria da eta gaur egun unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea da. 21 urterekin hasi zen dantza garaikidea egiten. Dantza Garaikideko Goi Mailako Ikasketak egin zituen Londresen, Hezkuntzan doktorea da eta gorputz adierazpena eta artearen bidezko ezagutza izan ditu ikerketa gai.

Jose Mari Eizagirre Agirre (1943)



Aian jaio zen 1943an. Zazpi anai-arrebatatik azken-aurrekoa. Gurasoak ere aiarrak zituen. 14 urte zituela, Usurbilera joan ziren bizitzera. Han urtebete egin ostean, Zubietako baserri batera joan ziren bizitzera, eta bertan bizi izan zen ezkondu arte. 27 urterekin Maria Luisa Mujika aiarrarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. Lasarten bizi izan ziren 25 urtez berriz Usurbilera itzuli arte. Michelin lantegian lan egin zuen bost urtez, baina igeltseritza izan du lanbide.

Antonio Eizmendi Iruretagoiena (1931-2013)



Aiako Iruretaegia auzoko Pilasoro baserrian jaio zen lau senideren artean hirugarren, bere ondorengo senidea meningitisak jota hil baitzen ere oso txikia zela. Gurasoak Aiakoak zituen eta baserriko bizimodua ezagutu zuen Antoniok txikitatik. Gerraostean, errotara ezkutuan joan behar zeneko garaiak bizi zituen, baina etxean ez zuten goserik pasa, baserriko jeneroari esker. 27 urte zituela, pentsu-biltegian hasi zen lanean Aiako plazan eta okindegian ere laguntzen aritzen zen, loari orduak lapurtuz. Makina bat bider joan zen goizean goiz Errenteriako Fanderiara pentsu bila, furgoneta hartuta. Ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen.

Anttoni Etxeberria Mendizabal (1914-2020)



Lokate baserrian jaioa; ama bertakoa zuen eta aita Uzkudun baserrikoa. Zazpi senide ziren, eta baserritik bizi ziren. Etxean bertan egon zen eskola hasieran, Lokaten; gero debekatu egin zuten, eta herriko eskolara joan zen Anttoni. Usurbilera bidali zuten neskame 13 urterekin, senitarteko batzuen etxera. Hantxe hasi zen tabernan lanean, ahizparekin batera, eta gero Zarautzen eta Donostian ere jardun zuen zerbitzari. Aiako gizon batekin ezkondu, eta hamar seme-alaba izan zituzten. Zarautzen eta Hondarribian bizi izan ziren; Hondarribian taberna jarri zuten Amute auzoan. Besteak beste, gerrako kontuak aipatu ditu.

Esther Ibaguren Arrillaga (1941)



Aiako Izekiondo baserrian jaio zen 8 senideren artean eta beti bizi izan da bertan. Aita Aiakoa zuen, kalekoa; ama, ordea, Arginberri baserrikoa. Baserritik eta baserrian bizi izan da beti eta ondo ezagutzen ditu bizimodu horren gorabeherak. Anai-arreben arteko batasuna eta maitasuna agerikoa da Izekiondo baserrian.

Luis Iburguren Arrillaga (1942)



Aiako Izekiondo baserrian jaio zen 8 senideren artean 5.a eta han bizi izan da beti. Aita Aiakoa zuen, kalekoa; ama, ordea, Arginberri baserrikoa. Baserritik eta baserrian bizi izan da eta ondo ezagutzen ditu bizimodu horren gorabeherak. Umetako garaiak gogoan ditu. Anai-arreben arteko batasuna eta maitasuna agerikoa da Izekiondo baserrian.

Maria Iruretagoiena Iturzaeta (1926)



Aiako Gurrutxaga baserrian jaio zen, 5 senideren artean 2.a, eta bera neska bakarra. Hala, lan asko egitea tokatu zitzaion etxean: anaia gazteena zaintzea hark 2 hilabete zituenetik, baserriko jeneroa saltzera joatea Zarautz eta Oriora, arropa garbitzea, sukaldean aritzea... Eskolara joateko denbora gutxi izaten zuen, baina bizitzak irakatsi izan dio hainbat gauza, sendagaiei buruzkoak, besteak beste. Bere ezkontza ondo gogoan du, 1956ko hotzaldiak bete-betean harrapatu baitzituen senarra eta bera ezteibidaian. Kontalari ona eta argia.

Andres Lertxundi (1917)



Aiarra. Baserritarra (orain kalean bizi da). Aspaldiko kontuak asko gustatzen zaizkio, eta primerako kontalaria da.

Joxe Mari Lertxundi Zuloaga (1932)



Argin baserrian jaio zen 8 senideren artean txikiena. Gizon jantzia, baserriko bizimodua ezagutu zuen txikitatik eta inguruan gertatzen zena aztertu izan du beti: familiaren jatorria, lehengo gaixotasunen nondik norakoak eta sendabideak, herriko ohiturak, karobien funtzionamendua, gerrako miseriak... Bertsolaria izatez, buru argia du kontakizunak gogoratu eta bata bestearen atzetik maisutasunez lotzeko.

Markos Manterola Zulaika (1937)



Aiako Elkano auzoko Lertxundiberri baserrian jaio zen, 14 senideren artean 13.a; 2 senide, ordea, oso umetan hil ziren, haietako bat Markosen bikia. Baserrian lan asko egindakoa, oso ondo gogoratzen du orduko bizimodua. Eskolara joateko denbora gutxi izan zuen, eta gaztetatik hasi zen ebanista lanetan. Erretiroa hartu arte, krisialdi ugari ezagutu izan ditu, eta horregatik hainbatetan aldatu behar izan du lana; gaztetan Frantziara ere joan zen lan-baldintza hobeen bila, baina han desengainua izan eta ordutik Gipuzkoa inguruan aritu izan da lanean altzariak egiten. Bertsozalea umetatik, hainbat txapelketatan hartu izan du parte eta oraindik ere badu lagunekin elkartu eta bertsoan aritzeko ohitura. Ezkondu eta bi seme izan zituen. Kontalari argia eta memoria onekoa. Elkarrizketa egiterakoan, Zarautzen bizi zen.

Joxepa Tolosa Beldarrain (1914-2012)



Aiako Telleria baserrian jaio zen, 10 senideren artean laugarren. Aita Adunakoa zuen, eta ama Aiakoa. Bost urte zituela, istripua izan zuen belaunean, eta orduko sendabide okerren erruz, hanka elbarrituta geratu zitzaion. Baserriko lanetan aritzea tokatu bazitzaion ere, bere ardura hiru anai-arreba gazteenak zaintzea izan zen. Hankako istripuaz geroztik, Joxepa Uzkudungo eskolara joan zen; baina irakurtzeko zaletasun handia izan duenez umetatik, hortik hartu izan du jakinduria gehiena. Gerra garaian, 1937an, Aiako maistra izan zen, eta hala eman zituen 11 urte. Gerora, San Pedroko elizako martxa eramanean zuen 46 urtez: dotrina ematen zuen, elizako obrak zuzentzen zituen, dena prest jartzen zuen apaizek meza emateko... Etxean josten aritzen zen. Emakume argia eta memoria onekoa, mende bateko kronika egin zigun.

Jose Manuel Urkirizar (1938)



Joxe Antonio Zubeldia Etxeberria (1942)

Aian jaioa, zazpi anai-arrebatan gazteena. Gurasoak ere aiarrak zituen. Aian taberna zuten etxean. Koruan abestea izan du zaletasun handienetakoa. Gaur egun Donostian bizi da.

Axun Zuloaga Azkue (1922)



Aiako Ureta etxean jaio zen, Kanua jatetxe ezagunean, 10 senidetan 6.a. Aian bizi izan da beti, familiaren jatetxean lanean. Herrian izandako kontuak ondo gogoratzen ditu: umetako jolasak, gerrako oroitzapenak, gaztetako ohiturak... Anai-arreben arteko laguntasunak garrantzi handia izan du bere bizitzan. Kontu guzti hauek kontatu zizkigunean, Aian bizi zen [Ignazio](#) anaiarekin.

Ignazio Zuloaga Azkue (1928)



Aiako Ureta etxean jaio zen, Kanua jatetxe ezagunean, 10 senidetan 8.a. Umetako garaiak gogoan ditu, baita orduko bihurrikeriak ere. Aian izandako aldaketak ezagutu izan ditu, eta gerrako gertakizunez ere jabetu zen, orduan txikia bazen ere. Ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituen; baina alaba gazteenak 2 urte zituela, alargun geratu zen. Senideen laguntzari esker aurrera atera izan da familia. Elkarrizketa egin zitzaionean, [Axun](#) arrebarekin bizi zen Aian.

Mari Ixabel Zuloaga Azkue (1925-2018)



Aiako Ureta etxean jaio zen, Kanua jatetxe ezagunean, 10 senidetan zazpigarrerna. Etxeko jatetxean lanean ibilia, ezkondu zenean Aiako Laurgain auzora joan zen bizitzera. Gogoan ditu umetako garaiak, jolasak, jatetxeko gorabeherak, gerrako kontuak... Sei seme-alaba izan zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. Urdaneta eta inguruko auzoen artean hartu-eman handia

- **Hizlaria(k):** Aristi, Maria Peregrina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AIA-003/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:02:50
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Urdaneta Aia da; inguruko auzo guztiekin izan dute hartu-eman: Aizarna, Aizarnazabal, Zarautz, Urteta... Inguruko erromerietan elkartzen ziren inguruko baserritar guztiak.

Transkripzioa

- Eta Urdaneta Aia da, ezta?
- Aia, bai, Aia.
- Eta zuek, e, hartu-emanen ze izan dezue gehio Aiako jendiakin o Zarauzkoekin, o...
- Ba, hementxe, Aia ta, Urdaneta ta, Altzola ta, Urteta ta, Aizarnazabal ta, Aizarna ta... gure zea hemen izaten zan.
- Aizarnazabal ta Aizarna 'e bai?
- Bai. Aizarnazabalea San Mioletan juten giñan, Aizarna Ama Birjin bezperetan, Altzola San Romanetan, Aia Asentziyotan. Eta danea jun in behar, ordun. Oaiñ ez, oaiñ bezela kamiyon ta kotxen ez.
- Mendiz.
- Mendiz, ze erremeio!
- Orduan erromeriak izaten zian jendia elkartzeko, ta.
- Bai, jendia elkartzeko, barriyotan. Urtetan 'e bai ta, Elkanon 'e bai ta, San Pedrotan [...], San Sebastianetan Urtetan ta.
- Orduan, ze, esango diazu zeintzuk zian hamen inguruko jaiak?
- E?
- Hemen inguruko jaiak zeintzuk zian?
- Jaiak? San Martin. Urdanetako San Martin. Altzolakua San Roman. Oain pasa dia biyak.
- Eta Urtetakuak?
- San Sebastian.
- Eta haundienak zeintzuk izaten zian?
- [...] giñun, Urdanetakok.
- Urdanetakok.
- Bai.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Urdanetako eskola

- **Hizlaria(k)**: Aristi, Maria Peregrina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AIA-003/007
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:10:25. **Bukatu**: 00:13:30
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskola Urdanetan bertan izan zuen, auzoko ume guztiekin batera. Bera nahiko ona zen ikasten, baina ez zitzaion gehiegi gustatzen. Lau edo bost liburu ikasten zituzten: Katona, Dotrina, "Manuskritoa"... Apaiz talde bat izaten zen Urdanetan, eta beraiek izaten ziren maisuak.

Transkripzioa

- Eta bestela, eskola gooratzen dezu?
- Bai.
- Zure eskola denpora?
- Eskola Urdaneta etortzen giñan gu. Ta apaiza eoten zan kriyakin, neskamiakin. Eta apaiza ta kriya eskola ematen ziguen guri.
- A bai, e?

- Bai, eskola earra ikasi giñun guk.

- A, bai?

- Bai. Geuretzako nahikua!

- Eta ze rekuerdo daukazu? Rekuerdo ona daukazu?

- Bai, bai, bai. Gaiñea gu jarduten giñan gutxiyo zekiyenai eakusten. Pentsau hortik...

- A, bai, e?

- Bai. Bazian gutxiyo zekiyenak. Bai, neuk esatia ez dao ondo, baiño [...].

- Eta, danak batera izango zian, ez?

- Bai, eskola baten.

- Eskola baten danak. Neska ta mutil ta.

- Bai, bai, danak sosiyo.

- Eta gustora etortzen ziñan eskolara?

- Ez, beti ez, beti ez gustoa, baiño etorri in behar. Dotriña ta ikasi giñun, behintzat. Nere Jesukristo Jauna ta, [...] ta.

- Eta ze ikasten zan, ze ikasten zan eskolan?

- Aurrena Jesusa. Geo, katona. Geo, dotriña. Geo, manoskrituak [...] beste bati. Eta hoiiek dana ikasi giñun.

- Hoiiek liburuak zian.

- Bai, liburuak, koska-koska. Jesusa ikasitakon, katona. Ta katona ikasitakon dotriña. Ta mandamentuk ta bedeinkatu, ta...

- Ta gero manuskritua.

- Bai, manuskritua. Hua zaila zan, [...]. Letra 're txiki-txikiya ta, Jesus ama! Zer zan hua?!

- Eta katona ze zan?

- Bastante errexka, katona.

- Eta ze ikasten zan katonian?

- Katonakin, ba, lehengo bizimoua, lehengo zaharran zeak eta ekartzen zitun ta. [...]

- Ixtoriyak eta.

- Bai, ba. Ixtoriyak.

- Eta matematikak eta, sumar eta restar ta holakoik?

- Ez, ez, ez, ez.

- Ez?

- Matematik ez. Kontuak ateatzen bai, baiño...

- Hori bai?

- Bai. Restar ta sumar ta hoiiek bai.

- Hoiiek bai?

- Bai. Multiplicar ta, dividirrea gaixki ibiltzen giñan, baiño ateatzen nun hua 're. [...] Jesus, Maria ta Jose! Zer zan hua lakua?!

- Eta maixua, orduan, apaiza zan.

- Apaiza ta kriya, bai.

- Izena nola zeukan?

- Apaizak? Batek Don Daniel, bestiak Ixabel, bestiak Justa. Bestiak zer zun izena? Don Prantxixko. Haiek zian ordun maixu. [...] zan Don Franzixko.

- Eta onak zian maixuak han?

- Bai, txarrak ez zian, baiño. Aldian behin ematen zituen ziprixtiñak hola eskuan ta.

- Bai?

- Bai.

- Gogorra zan?

- Bastante. Apaiza behintzat bai, ño! Haik txapel txiki bat jazten zunen, ez zan girua izaten. Igertzen zitzaion, bai, "gaur mala letxe zakak honek!".

- Bai? Bai? Sartu orduko, ez?

- Bai, bai, sartu orduko.

- Eta nun zeon eskola, bertan?

- Hortxe, hortxe eskola, bai.
- Uaiñ 'e, uain bada?
- Bai, hortxe, hortxe, bai.

2.2. Ebakiak eta gaixotasunak arintzeko erremedioak

- **Hizlaria(k):** Aristi, Maria Peregrina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AIA-003/026
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:02:30
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena:** Ebakia eginez gero, amauma-sarea (armiarma-sarea) jartzen zuten gainean. Bariza lehertuz gero, babarruna jartzen zuten. Etxeko erremedioak ziren. Karraskila, asun-ura odola mehetzeko. Neberako baserritarra zen auzoko sasimedikua. Katarroantzako berbena erabiltzen zen

Transkripzioa

- Gaixotu ezkerro ze izaten zan, e... Meikoik eta bazan hamen inguruan?
- Meikuk izaten zan baiño hola, ebakiya indakuan ta presa nola izaten zan, nik iten niyon [amuamu]-saria ekarri, lori-lori. Meikua ekarri gendun eta esan zian "Hau nundik, ze, nola ekarri dezu hau?", ta, "Guri hoi esaten ziguen, ta!", [...] zakan goikua zikin-zikiña. Ta, "Bai, bai. Baiño klase hau izaten da, ba, hola leiho ixkiñetan ta fin-fiña?", "Bai", "[...] penizilina nahasten diyoe, oso ona da", esan zian. "Oso fiña dao", baiño hala 're geauta zakan odola, e!. Esan zian leiho ixkiñetan ta zian fiñ hoiiek penizilina nahasten zixkoela, ta oso ona zala.
- Eta zuk, e, hori nun ikasi zenun?
- Baten batek zekin.
- Amakin o aitakin, o?
- Baten batek [...]. Aittik ez nun ezautu, aitta jaio baiño lehenuo hil zan. Baten batek [...] aitonak, amonak, eo. [Amuamu]-saria oso ona zala. Ta barizak lehertzen dienen, nik kriston barizak euki izan dittut [...]. Eta baarruna zeatu, baarrun erdiya, alian erdiya kendu ta jarri. Ta sendau arte ez da hua libratzen, ta ez da halakoik 'e, barizak lehertutakon. Jarri hua, ta lotu, ta ez da libratzen, peau itten da, ta, azala [...] zaionen, libre.
- Horrelako kontu asko izango zian lehen, ez?
- [...]. Besteik ez zeon, ta!
- Etxian ikasitako...
- Etxian bai, etxian bai. [...], karraskillan ura ta izaten zian. Asun ura ta, odola mehatzeko, oan ez dakit zenbat klase eongo dan. Nik Sintron hartzen det oain, baiño ordun asun ura.
- Odola mehe...
- Odola mehetzeko, odola mehetzeko bai. Onena asun ura.
- Ta tentsiyuantzako 're bai, asun ura oso ona.
- Eta hamen inguruan 'e bazan horrelako kontuetan eta...
- Bai, zea, sasiadona eoten zan horkua...
- Bai? Bai? Zein zan?
- Neberako [Mikela], Neberakua. Oain etxia destrozau zan, baiño

Neberakua, bai.

- Eta bera zan holako sasimedikua?

- Bai. [...], bai. Karraskilla zea izaten da, egurra. Ta egurra oso ona katarruantzako, oso ona. Uretan egosi...

- Egurra? Egurra bera egosi?

- Bai, egurra. Pixkat landu, egosi ta haen ur oso ona. Asuna 're bai.

2.3. 1956ko izozte historikoa

- **Hizlaria(k):** Lertxundi Zuloaga, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** AIA-014/008
- **Iraupena:** 0:06:50. **Hasi:** 00:14:41. **Bukatu:** 00:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** 1956an izozte handia egon zen, gertaera historikoa izan zen hura. 1955eko abenduan eta 1956ko urtarrilean, udako giroa zegoen. Zuhaitzek kimu berria bota zuten. Basarrik bertso batzuk jarri zituen izoztea igaro ondoren. Urtarril bukaeran, giroa hoztu egin zen; eta, Kandelario Egunean, izotz beltza egin zuen. Otsail guztian egin zuen hotz izugarria: zenbait lekutan, 18 gradu zero azpitik. Gizon bat hotzez hil zen. Zenbait teilatutan, 40 egunean egon zen elurra. Garraiobide guztiak gelditu egin zituzten. Ganaduantzako jatenik ez zegoen, eta ardientzat bereziki gogorra izan zen garai hura. Orduko janzkeraz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Esan dezu baita're eon zala urte bat elurte haundiya in zuna.

- Elurtia, bai.

- Ze izan zan hori eo?

- Berrogeita hamaseiya zan. Bueno, hixtorikua zan, e. Esaten zan lehen ehun urte eo [baziala]. Berrogeita hamaseiko, berrogeita hamabosteko urtian bukaeran... bai, abenduba eta ilbeltza edo... Zuk ilbeltza esanda entenditzen al dezu?

- Bai, urtarrila.

- Bai, beno. Hoi izan zian udara bezelakok. Bai. Ni goatzen naiz obretan zebillen jendia-ta elastiko hutsen, ta berua. Ta zeak, sagarrak eta hoik'e, loria atera zuen. Bai. Ta goatzen naiz, gaiñea, batzuk sagar pepitta're ein zitziayela. Eta piñuk eta arbola danak zea, brote, kimu berriya atera zuen. Eta, gaiñea, `Basarri´ zanak... `Basarri´ aitzera izango dezu behintzat? Bai. Bertsok jarri zittun ondorenen eta esaten zun:

Gabon jaitara iritsi giñan uda kutsu eder baten, elastiku bat jazteko ere ez zun gogorik ematen, aurtan negurik ez genduela hor ari ziran esaten, ondo pentsatzen jarri ezkeru, a ze deskuidua zeukaten.

Geo, zean, ilbeltzan hogeita bedetziya edo, hasi zan egualdiya txartzen pixkat hantxe. Eta azkeneko egunen, zean, Frantzi iparra edo, Norte beltza edo, norteko haize hotz hori sartu zun eta otsaillan aurreneko eguna izotza eo egiña. Ta geo, otsaillan biya Kandelariyo eguna izaten da, lehen jai

izaten zan, gaiñea, ta elizaa danak etortzen giñan. Ta zea hori, gau hartan izotz beltza in zun, zea, jela. Eta goiz meza, zazpietako mezetaa, nik huaxe gogon daukat, baserritik eta elur lapraxta, hola, txurituba zegon. Ta zean honako hegabehera ta antzarrak eta piztiyan hotsa aitzen zan ta, bueno, [besten] izugarrizko zea etorri zan, ordutik hasi zan. Eta ehiza izugarri, dana, eta guardia zibilak [geo uztetaka] eta ehiztariyak´e gaixki. Eta egin zun hillebete. Otsail guziya... egunero elurra puxka bat ein eta zer? hemezortzi gradu azpitikan izan... aillatu emen zian. Eta in zittun zeak... ordun ganau jatentzako zea izaten zan arbiya, jaten bat negukua, danak usteldu zittun haik izotzak, ja-ta... Ta piñu guztik danak ihartu ein zittun, piñudiya erabat jun, zea, danak atea zian ordun. Ta gaiñuntzeko arbolak eta. Elurra haundiya. Ta izotza bengua egunero! Ta, beno, hantxe. Ganaua gosek hiltzen, baiña beste laneako giroik ez zeon ta ehizen jo ta [ke] hortxe ibiltzen giñan, ahal zan guziyan. Ta geo, gizon bat´e, hortxe Iturriotz aldea zijuana-edo, gauen, abittu ta biden hilda geatu zan elurretan. Ta pasa zian hola okerrak. Eta izuarri gogorra izan zan. Nik badakit hor, [...] bostehun bat metroa-eo zeon basarriya-eo teillatun elurra berrogei egunen eon zala han. Eta... berrogei egun ta hemen gutxixio behian, baiña izan zan...! Bueno! Ta dana, transportia ta´re, dana geatuba. Ordun gutxio zeon oain baiño, baiña... izugarriya eman zun. Ta ganauantzat ardik eta hola asko xamar zittuenak bastante akatuak izango zian, zeatik ez zeon jatenik ta oain bezelako bordak eta prepaatuik´e ez, eta behintzat zean. Behiyek-eta nola-hala aguantatuko zian, baiño ardintzat-eta izugarri gogorra.

- Hoik kaltiak ekarri zituna, e? Ta zuek nola aguantatu zenuten? Janariya bazeneukaten zuentzako?

- Bai, zean gaixki, e. Baserritan´e jatenak ahittu zian. Hantxe... oso... ba, behiak gosek amorratzen ordun pasa zittuen. Ta ura´re, urik eta´re ez zeon jarriik baserritan ta ura´re iturritik ekarri ta baldekin eaman in ber, ta... bueno, hillebete izugarri gogorra izan zan.

- Eta esan dezun gizon hura, hil zana edo, ze hil zan hotzagatik o?

- Ba, bai, gauen zijuala. Hemen tabernan eonda eo, ba, abittu zala, ez dakit, pixkat... eta elurra geo... Bai, ba, hor gora. Iturriotz zazpirehun metroa dao eta aldameneko basarriya zan, [Muatzu] zun izena, oain eroriya dao hua, baiña. Ta hangua. Ta geo ta elur haundigua! Iguale eongo zan orduako metro bat elur, ta zea. Eta hantxe, erorita. Geo jendia billa etorri zaneako hilla. Ta hotza, hotz [harek gehiyenbat].

- Eta lehen, hotz hura iten zunian ta, nola abrigatzen ziñaten zuek?

- Ba ez zeon erropa aukera haundik, baiña nola-hala aguantatu gendun.

- Zer zeneukaten orduan? Ze jazten zan?

- Ordun? Ba jertsia ta zira zaharren bat eo baldin bazan eo... holaxe.

- Horixe bakarrikan?

- E?

- Hori bakarrikan?

- A, bueno, oaingo kontuik ez pentsatu, e!

- Joe, baiña hemezortzi gradu zero azpitik esan dezuna, izango zana...

- Bai, ez zian izango eunero, baiña zean. Ni goatzen naiz lehenbiziko gauen sorotikan arbiya eo ekarri ta etxen barruan jarri ta barrun´e izotza gogor eitten zula ordun´e. Ez zeon kalefaziyoik eta ezer ordun. Suba ingo zan eta hua ez zan aillatzen danea ta hotza. Bueno! Ta zaharrentzat eta, nik ez dakit, bildurgarriya hua, e! Ordun... Oain bezela, oain etxia epelduta, ta hotzagatik hor egoten zea. Baiña orduko bizona ez dao konparatzeik oainguakin: jantziya, alimentaziya. Esan nahi nuke, jana behintzat aukeran bado oain eta erropa holakua, oiñetako ta gauza´e bai ta... bueno!

- Eta hura bukatu zanian? Noiz bukatu zan? Martxoako ya bukatu zan elurte hura eo?

- Bai, martxuan, bai. Ta geo uste det haren aurreko segidako urtia bastante ona izan zala. Bai. Baiña oso-oso gogorra. Enee...!

3. Baserria

3.1. Baratzeko jeneroa, eta lehengo janariak

- **Hizlaria(k):** Aristi, Maria Peregrina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AIA-003/016
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:29:45
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Baserriko bizimodua, ganadua eta txerria zen gehienbat. Ardi gutxi batzuk ere bai. Baratzean ere egiten zuten, baina gutxi, etxerako batez ere: tomatea, aza, letxuga... Lehen, tomatea ez zen gordinik jaten; beti eginda. Entsalada letxuga bakarrik zen, tomaterik gabe, eta letxuga ere gutxi. Tomate gordina jatea kanpotik etorri zen. Bazkaltzeko porruak, edo babarrunak... eta afaritan, gaztainak, esnea... Kanpotik senideak zetozenean, orduan janari bereziak ere egiten ziren, konbidautza izaten zenean.

Transkripzioa

- Eta, bestela, baserri inguruanena, zuen bizimodua ze zan... Ganaua gehio, o baratza, o?
- Ganaua ta txerriya gehiena.
- Txerriya?
- Bai. Txerriya ta oillua ta ganaua [...] 're bai.
- [...] 're bai.
- Bai.
- Eta ardirik?
- Ardiik 'e beti.
- Bai?
- Bai.
- Orduan denetik. Danetik, ez?
- [...] gutxiyo, baiño ardiya gehio lehen baiño uain. Bai, danetik. Heaztiyak [...] oillaskua ta ollok, eta etxean ateatzen giñun txitak, eta antzarrak ekartzen giñun, ta pabok 'e bai, ta. Danetik.
- Antzarrak eta pabuak, e?
- Bai, bai, bai. Basarriya natuala.
- Eta, baratzian?
- Baatzen 'e pixkat itten gendun.
- Eta ze izaten zan?
- Baiño ordun iten zana izaten zan aza ta porruba ta tomatia. Gaiñuntzeko uain daon zea hoiek ez zian itten. Oain klase asko dabe [...].
- Bai.
- Ordun ez zian hoiek itten.
- Bai. Eta piperrik eta? Piperrak eta?
- Etxian piperrak, ordun? Etxian?
- Ez, ez zan egiten?
- Ez.

- Ez, e?
- Ez, piperrik ez zan itten.
- Eta tomatia esan diazu?
- Bai, tomatia bai.
- Baiña lehen tomatia aitu det basarrietan ta ez zala jaten tomateik, tomatia ensaladan ez zala jaten.
- Ez zan jaten, ez zan jaten, ez. Arrazoi dakazu hor, lehen ez zan jaten. Inda bai, baiño gordiña hasi omen ziala jaten, ta, Jesus, Maria ta Jose! Geo guk 'e ikasi gendun.
- Baiño zuek, zure gazte denporan ta umetan eta?
- Ezta pentsau 're.
- Ezta pentsau 're.
- Ezta geo 're. Gu hazi ta geo 're ez zan jaten.
- Ez, e?
- Ez, ez, ez. Ez zan jaten.
- Gordiñik sekulan ez.
- Ez, ez. Oain berrogei urte jaten zan [...].
- Orduan entsalada ze zan? Letxuga.
- Letxua, bai. Letxua, hua 're gutxi. Jaitan, ondo behar zanen.
- Eta tomatia beti einda.
- Inda, inda beti, paelan inda beti tomatia. Beti, beti, beti inda.
- Eta, orduan hori kanpotik etorri zan? Entsaladan jatia?
- Bai, kanpotik etorrira hoi, beltzak eo ez dakit nik... Kanpotik ekarri zuen, kanpotik. Gordiñik jaten omen zuela tomatia, ta, Jesus, Maria ta Jose!
Pixkana-pixkana-pixkana, aillau honea 're.
- Baiña, esan diazu normalena izaten zala babarruna...
- Bai! Aza ta babarruna.
- Txerria...
- Ta porruba ta...
- Porruba...
- Txerriya hil, ta. Oholkik in, ta...
- Eta afaltzeko?
- E?
- Afaltzeko?
- Apaittan?
- Apaittan?
- Udazkenen gaztaiñak eta porrusalda. Ta geo baso bat esne nahi zunak, ta nahi ez zunak [...]. Gaztaiñak izaten zian. Ta bestelakuan, berriz, porrupatatak eta, arroza iten gendun, baatxui zopa 'e bai, ta, danetik.
- Arroza 'e bai, e?
- Bai.
- Bai?
- Arroza bai. Arroza aspaldi ikasi gendun itten hua arroza. Arroz con leche bai gozo askua. San Martiñetan, zean, gonbidau zianen ta bezpean dotore jarri, hola, [...] dotore asko itten giñun guk.
- Jaietako?
- Bai, hoixe, ondo behar zaneako.
- Konbidautzan eta.
- Konbidautza ta, bai.
- Orduan, kanpotik 'e etortzen zan jendia?
- Bai, bai. Etortzen zian, aizu.
- Senidiak eta?
- Bai, ba. Seniriak eta [...]. Geo, ilusiyua eukitzen gendun guk 'e.
- Bai, ba!

- Ez zazula pentsa! Nahiko zapill earrakin ta, eukitzen giñun dotore-dotore. Oain bezela ez, oain papela jartzen diyot. [...].

3.2. Lurra lantzeko tresnak

- **Hizlaria(k)**: Aristi, Maria Peregrina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AIA-003/021
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:37:15. **Bukatu**: 00:39:20
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Lurra lantzeko tresnak: gurdia, laia, karramarroa, laukoa (lau hortzeko), bostekoa, zazpikoa, goldea... Lurra lantzea baserriko lagun guztiena izaten zen, nagusi eta gazte. Itulana umeen lana izaten zen, baina lan gogorra eta hotza (neguan egin behar).

Transkripzioa

- Eta bestela, baserriko tresnak eta gurdiyak eta esan dezu...
- Gurdiak eta gure gizonak itten zitun. Berrik ekarri itten zituen, baiño guria hor arreglatzen ta asko ibiltzen zan. Karramarro ta hoiek arreglau itten zittun. Ez zeon [...], karramarruk eta hoeik, laiak eta hoiek. Ikusten dezu, oaiñ 'e ikusten ditugu, hor ai dia.
- Bai. Laiak, eta bestiak esan dezu?
- Laia.
- Bai, eta bestia? Karramarrua?
- Karramarrua.
- Zer da karramarrua?
- Karramarrua lurra jotzeko, ra-ra-ra, dana burnizkua izaten da.
- A! Burnizkua?
- Bai, burnizkua, bai.
- Goldia?
- Goldia 're bai, hua jiratzekua. Aria 're bai, ta. Goldia, aria, karramarrua, laukuak, bostekuak, hoiek danak izaten zian.
- Laukua ta bostekua dia, lau, lau hortz...
- Bai, lau hortz batek ta bestiak bost.
- Bost. Laukua ta bostekua izaten zian. Bai.
- Ta zazpikoik eta?
- Zazpikua 're bai.
- Izaten zan?
- Zazpikua izaten zan, bai, [...], ta karramarrua, ta goldia, aria bea txikitzekua, rrrrr, txikitzekua.
- Eta hori guzti hori zeñen lana izaten zan?
- E?
- Gizonen lana izaten zan, o emakumiena?
- Danena.
- Danena?
- Gizonak ez ziyen emakumei [...], baiño emakumek gizonen in behar! Askotan. Oan bestea omen dao, oain aitzen det bestea daola. Oain gizonetzkuak ai diala emakume lanak iten. Ez dakit ze izango dan!
- Eta goldia ta...

- Bai. Beno, neu 're ez naiz jardun behiñ 'e golden 'e?! Hola, jiatzen. Goldia ez da hain gaixtua 're. Behintzat [...] baxtarreta aillau ta lixto, segi. Oain, ittulaia behar ona ta iriya.

- Bai. Ittul-lana ta?

- Ittul-lana ez da lantei earra.

- Ez?

- [...].

- Ta zeifena izaten zan, umien lana izaten zan?

- Bai, ume koskorrana ta bai, ume koskorrana ta. Ordun, aizu, hotza. Ta oñetakuk 'e [...].

- Bai. Eta negun, neguan ein behar.

- Bai, ba. Bai, ba. Abenduan.

- Abenduan.

- Ene! Zer zan bizimou hua! [...].

- Eta, bestela zu, laietan ta ibilitakua zea?

- Ez, laian ez nitzan jarduten.

- Goldian bai, baiña laian ez. Zean, laia dana atxurra in behar izaten da, ba, asko. [...]. Bai, ba. [...] Ta ein zazu haiei, dana kendu iozu, zaiña o ze kristua izaten da o. Ta erreka garbittu in behar [...]. Ene!

3.3. Argin baserriaren historia

- **Hizlaria(k)**: Lertxundi Zuloaga, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: AIA-013/003
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:00:49. **Bukatu**: 00:03:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Argin baserrian jaio zen. Baserri hark bi bizitza zituen. Baserriaren historiari eta bertan bititako pertsona ezagunei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Argin baserriya, nun dao hori?

- Ba ikusten da hemendik.

- Hemendikan?

- Bai, erakutsiko dizut geo /eakutsikoizut/. Hemendik, ba, kilometro batea edo hola. Bi bizitzakua da, zan, gaiñea. Oain bakarra. Nere familiarrak geo azkenengua oaintxe urtebete hil zian anai-arrebak, ordun kalean bizi zian orduako, eta beste bi... Gaiñea giñan bitan gure gurasuak lehengusuak zian.

- Hara! Bi bizitzetakuak?

- Bai, bai. Eta alde batekok zian Arrillaga, hua zan aurretik zetorren kasta. Gaiñea, esango dizut: Arrillaga hori zetorren... beheragon dao Manterola baserriya. Nere andria zana hangua zan. Zea zeon, burdiñola izandakua da, Agorregi goraxegon dago ta tarte hortan zan Elordi. Hua ´re Laurgain auzoko sailletan zeon ta Elordi ta Elorteta. Elordi hortan esaten due / esateue/ Manterola burdiñolan olagizonen enkargatu-buru iten zuna-eo zala Inazio Arrillaga. Ta hua Elordi basarrin bizitzen emen zan. Ta Elordi hortako seme bat geo historin azaltzen da Kalifornin gobernadore izandakua. Bai, Jose Joakin Arrillaga. Mila ta seirehun eo ez dakit nun datorren hor, bai. Ta, itxura danez, ez dakit eo fraile estudiante izandakua

zan edo bestela behintzat militarra izana, teniente-koronelan graduba emen zun. Ta geo gobernadore interino lehenbizi ta geo gobernadore. Eta han ba emen zan zea bat, misiyo bat, fraileena, “Misión de soledad” uste det zala izenez, ta hairi asko lagundu emen ziyen gobernadore horrek, Arrillaga horrek. Ta geo, mutil zaharra emen zan eta kargua utzi [zittunen], komentua eo misiyo hortan bazartu omen zan ta han hil emen zan -urtiak jartzen dittu /jartzeittu/, ez dakit. Beno, [...] zea hori esaten due /esateue/ horko semia zala.

- Hara! Eta handik dator...?

- Eta handik dator “Arrillaga” hori. Bueno, hola da historiyan. Ziharo ez, baiña hori askotan etorri da periodikon-ta ´re horren historiya o. Oain, [ez hola esateko] “hua zan semia horkua”, baiño esan... aurretik hola dator historiya, horko semia zala.

3.4. Amaren ogi goxoa

- **Hizlaria(k):** Manterola Zulaika, Markos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** AIA-020/023
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:44:18. **Bukatu:** 00:45:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Baserrian labea zeukaten eta amak esku ona zuen ogia egiten; Markosek eta anaiak ogiaren masa egiten laguntzen zioten. Amak ogia nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

Guk labia gendun, ta gure ama zanak oso esku ona zun, ogiya iten. Ta gu ´re majiña bat bidar, mutil koskorrak, beste anaiyia ta biyok ibiltzen giñan. Amasea esaten zitzayon, kaja haundi bat, laukiya kaja, ta han amak itten zun ore pillo bat. Eta, ondo itteko, horrek asko ibili ber izaten du /izateu/ ta hua eskuakin beti ai bazea nekau itten da /ittea/. Ta gu, hankak uretan garbittuta, iyotzen giñan ta gaiñen jo-ta hankakin. Guk dana zabaltzen gendun, amak berriz´e pillatu. Jarri pilluan ta berriz´e ttiki-ttiki-ttiki, gaiñen hori zabaltzen. Hola saio bat ein ta gero hortikan ogiyak itten zittun amak. Eta jartzen zittun mahai baten gaiñen danak, altxa in ber izaten zan, ba. [Ogi hoiek] leamiyak eo indako operaziyua: altxa. Ta, hala, altxatzen zianean, borobillak itten zittun ta hola ebakiyak kutxilluakin in. Galtzeta burniyakin zatzada batzuk in ta arrautz gorringuakin gaiña igurtzi ta laben sartu. Haiek gero, labetik aterata, bero-bero eoten zian ta ez ziyozun grazi handik hartzen, baiño hurrengo egunen-ta haiek gaurko pastelak baiño earro eoten zian. Oso ogi earrak! Eta erretirau in ber pusketa bana partiuta, bestela ahittu itten zian ta.

4. Euskara

4.1. Urdanetako euskara eta ingurukoa

- **Hizlaria(k):** Aristi, Maria Peregrina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AIA-003/024

- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:42:20
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Urdanetako euskara Aiakoaren berdina da; Aizarnazabal, Aizarna, Altzola, Elkano eta Urteta ere antzekoak. Azpeitia ezberdinagoa, eta Zarautz eta Getaria ere ezberdinak.

Transkripzioa

- Euskera kontuetan ta... Urdanetako euskera zer da, Aiakuan antzekua?
- Bai.
- Zarauzkua...
- Ez, Aiakuan antzekua.
- Aiakua gehio?
- Bai.
- Zarauzkua baiño?
- Bai.
- Eta, zuk nabaritzen dezu Zarautzar bat hitz eiten hasi eta "A! Hau zarautzarra da!"
- Bai, bai, igertzen zaio, bai.
- Igartzen zaio.
- Azpeitiarra ta Azkoitiarra ta hoiei, oso samurra igertzen.
- Bai? Antzekuena zein da?
- E?
- Bertako euskerian, e, antzekuena?
- Antzekona, ba.... Hemen Urdaneta, Altzola, Urteta, Aizarnazabal antzekoena.
- Aizarnazabal 'e bai.
- Bai, bai.
- Antzekoa.
- Bai, Aizarna 're bai.
- Aizarna 'e bai.
- Bai.
- Eta Aia? Aia 'e bai.
- Aia 're bai, bai.
- Ta Zarautz ez.
- Ez. Oain, Azpeititik etorri ta, ta oan mezklauta pixkat Azpeitiar hizketakin hemengua, baiño behalaxe antzematen zaie.
- Azpeitiarrai?
- Bai, bai.
- Eta Elkano ta Getari...
- Bai, hoi 're hemenguak. Elkano ta hoiek.
- Bai?
- Getai pixkat ez, arrantzanko pixkat zeaxio, ta aparte.
- Bai, ez? Kostako...
- Ba, hoi da, kostako...
- Eta, Zarautz eta Getari antzera?
- Bai, antzea, antzera.

5. Familia eta harremanak

5.1. Aiako auto bakarraren inguruan bihurrikeriatan

- **Hizlaria(k):** Iruretagoiena Iturzaeta, Maria

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: AIA-024/008
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:10:43. **Bukatu**: 00:11:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Aian auto bakarra ezagutu zuen Mariak garai batean. Auto hark biraderarekin (manibelarekin) funtzionatzen zuen; mutil koskorrak bihurrikeriatan aritzen ziren autoaren inguruan.

Transkripzioa

- Automobilla asko ez zan. Nik bakarra ezautu nun automobilla.
- Hemen Aian.
- Aian, egiya. Eta ba hua zea akerrakin erain ta hasten zan. Bueno, ez dakit nola hasten zan, akerrakin behintzat hasten zen nolabait´e hasten zen, erainda. Bueno. Eta geo mutil koskorrek-eta akordatzen zian nola zeatzen zan ta hari ematen zien. Eutsi ta eutsi ta atea ta atea ta erritan hasten zan, baiño mutil koskorrek, bakizu, mutil koskorrek ze izaten dian, alde iten [...] ta berriz´e akerran hasi ber eta hor teatruk. Jesus! Nik hua bakarra ezautu nun e, nik nere bizi guztin bakarra ezautu nun.
- Ta zeiñena zan kotxe hura?
- Zea, Joxemaitxo esaten zitzaion eta hortxe, hemen aldameneko etxe hortan bizitzen zien. Oain berrittua do, e? Baiño hor bizitzen zien.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Txoriek egindako triskantzak (AIA-002/001)

Txoriek egindako triskantzak kontatzen ditu: bera gaztea zela, nola agertu ziren paseko txori batzuk, eta soro guztiak hondatu. Bestela, hormatxoriak eta beste txori batzuk ere izaten ziren.

2. Napar-birigarroa eta karaztarroa (AIA-002/002)

Napar-birigarroa eta karaztarroa nolakoak diren eta noiz ikusten diren.

3. Hegaberak, kulixkak, basoiloak eta frankolinak (AIA-002/003)

Paseko hegaztiak, negukoak: hegaberak, kulixkak (handiak eta txikiak), basoiloak (Zarautzen "alkaban gorriya" eta "alkaban zuriya"), frankolinak, antzarrak, kurrilloak...

4. Itsasoko eta erreketako hegaztiak (AIA-002/005)

Itsas-ahateak pasatzen zirenean ehiztari ugari biltzen zen Aian, eibartarrak gehienbat. Kaioak ere agertzen dira, noizean behin, itsasotik. Eta erreketan uroiloak (pinttarra bata, eta beltza bestea).

5. Zapelatza, mirua eta gabiroiak (AIA-002/006)

Zapelatza eta mirua. Mirua altura handitan ibiltzen da. Miruak hego okerrak ditu, eta buztana sarde itxurakoa. Horiez gain, saizuria ere egoten da.

6. Enarak eta mitxiguak (AIA-002/009)

Enarak eta mitxiguak. Mitxiguak hanka-motzak dira, eta ez dira lurrera jaisten. Mitxiguak Santakutzetan (martxoak 3) etorri, eta Santakutzetan (abuztuak 14) joan.

7. Txantxangorria baserritarren laguna (AIA-002/011)

Txantxangorria berezia da. Lehen asko zegoen, eta baserriko lanetan aritzen ziren bitartean, inguruan izaten ziren beti, talde handitan.

8. Pintxana lehen oso ugaria zen (AIA-002/013)

Pintxana lehen oso ugaria zen. Bandada izugarriak pasatzen ziren. Orain ere bada, baina askoz gutxiago. Kumeak ere erruz ateratzen zituzten.

9. Aiako hizkera eta ingurukoak oso desberdinak (AIA-002/015)

Aiako hizkera eta ingurukoak oso desberdinak dira: Zarautz, Orio, Asteasu, Zumaia, Errezil... Denetan motzena, Aiakoa. Asteasun dotore, Getarian kantuan... Zarauzkoak beste tonu bat dauka, eta Oriokoak ere bai. Hitzak, ostera, ez omen dira asko aldatzen herri batetik bestera.

10. Hilabeteen izenak Aian (AIA-002/016)

Hilabeteen izenak: ilbeltza, otsailla, martxua, apirilla, maiatza, garagarrilla, uztaa, abuztuba, agorra, urriya, azarua eta abendua.

11. Urdanetako Sanmartin jaiak (AIA-003/003)

Urdanetako jaiak Sanmartinak dira. Meza izaten zen, herri-bazkaria, Aiako agintariak ere etortzen ziren, eta arratsaldean soinu-jotzaileak. Inguruko herri eta auzoetatik jende asko etortzen zen. Erromeriak plazan izaten ziren, eta eguraldi txarra bazen, ganbaran. Inguruko erromeriak ere antzekoak izaten ziren, eta horrela ibiltzen ziren, handik hona.

12. Zarauzko eta Azpeitiko azokak (AIA-003/004)

Azokara Azpeitira eta Zarautzera joaten ziren. Zati gehiena oinez, astoa hartuta. Zarautzen zapatuetan izaten zen azoka, eta oso ondo saltzen zen. Zarautzerako bidea oraingo igualtsua zen, baina txarra, batez ere neguan.

13. Babarrunak egunero (AIA-003/005)

Garai hartako janaria, ia egunero, aza eta babarrunak izaten ziren. Haragia ere jaten zen, auzokoen artean hil, eta partitu...

14. Urdanetatik Zarautzera eta Azpeitira sarritan (AIA-003/006)

Urdanetan 28 baserri zeuden. Asko galdu dira azken urteotan. Aiara ez dago biderik, eta Zarautzerako joera handiagoa zuten Aiara baino. Azpeitira ere joaten ziren; Aizarnazabalera oinez, eta gero autobusean. Autobusa baino, furgoneta zen.

15. Zarauzko etxeetan zerbitzatzen (AIA-003/008)

Umetan ez zekiten ia erdararik. Mariak hiru uda pasa zituen Zarautzen lanean, eta hantxe ikasi zuen. Gazte asko izaten ziren Zarautzen udan zerbitzatzen, eta Zestoan balnearioan ere bai. Beretzat gustuko lana izan zen. Udatiarrek hondartzan bertan bazkaltzen zuten, mahai txiki bat jarrita, eta bera zerbitzatzen aritzen zen.

16. Elkarri abixatzeko, maindirea belar-meta gainean (AIA-003/009)

Eskolako giroa ona izaten zen; batzuetan haserretu ere egiten ziren, baina herriko gazteen artean giro ona zegoen. Jai egunetan ere elkarrekin joaten ziren inguruko jaietara. Norbaitek kale egiten bazuen, baserri ondoko belar-meta gainean maindire zuri bat jartzen zuen gainontzekoei abixatzeko.

17. Umetako eta gaztetako jolas eta jokoak (AIA-003/010)

Gaztetako plana karta-jokoa izaten zen. Festa bazen, inguruko herrietara; bestela jokoa. Gazteagoak zirenean, beste jolas batzuk ere izaten zituzten: txapetan, sokasaltoan, buruzganka...

18. Nere maitia lo ta lo (AIA-003/012)

Nere maitia lo ta lo

19. Altza Pelipe tru-la-lai (AIA-003/013)

Altza Pelipe tru-la-lai

20. Urdaneta herri txiki bat zen (AIA-003/014)

Mezak jaiero izaten ziren. Apaizak bertan bizi ziren. Urdaneta herri txiki bat zen: eliza, apezetxea, eskola, kanposantua... Taberna ere bazen, eta bolatokia ere bai.

21. Urdanetako bolatokia (AIA-003/015)

Bolatokia ere bazen Urdanetan, eta zaletasun handia zegoen.

22. Garia nagusiarendako (AIA-003/017)

Gari eta arto sail handiak izaten zituzten. Garia nagusiari emateko ere izaten zen, urtero-urtero errenta ordaindu behar izaten zuten eta. Abuztuan garia jo, eta abenduan errenta pagatu, hainbat anega gari. Urte txarra izan bazen, kanpotik ekarri behar garia, nagusiari emateko. Bizitza latza zen. Baserri guztiak errenteroenak ziren, maizterrenak. Urdaneta goian dago, baina eguzkitsua da eta garia ondo hazten zen.

23. Urdaneta inguruko errotak (AIA-003/018)

Garia jaso, eta ondoren errotara eramane behar izaten zen. Aiara, Azpeitira, Aizarnazabalera... Askok zenean Azpeitira eramaten zuten gurdi gainean. Garia eho, eta irina eta zahia ekartzen zuten etxera, zahi txikia eta zahi handia. Errotariari laka uzten zitzaion, irinaren zati bat, ordaina.

24. Mariaren gizona arotza zen (AIA-003/020)

Mariaren gizona arotza zen, eta berak egiten zituen baserriko tresnak, gurdiak... Uztarrigilea, baina, kanpotik etortzen zen. Eguna pasatzen zuen baserrian, eta egunean bertan egiten zuen uztarria, neurrira.

25. Emakumeen eta gizonezkoen arteko lan-banaketa (AIA-003/022)

Emakumezkoek sarri jarduten zuten kanpoko lanetan, baina gizonezkoak etxe barruan sekula ere ez.

26. Pentsu-biltegiko negozioa pixkanaka goraka (AIA-009/006)

Pentsu-biltegian aritu zen lanean Aian. Hasieran negozio apala zen, baina pixkanaka hazten joan zen.

27. Pentsua nondik lortzen zuten (AIA-009/007)

Pentsu-biltegian lan egin zuenean, pentsu bila Erreenteriara joaten zen, hangoa kalitate onekoa baitzen. Pentsua falta zenean, beraiek egin behar izaten zuten errota.

28. Pentsuz betetako zakuak (AIA-009/010)

Lehen pentsua saltzeko, 50 eta 100 kiloko zakuak erabiltzen zituzten. Zaku haiek bizkarrez eraman behar izaten zituzten.

29. Aiatik Erreenteriara goizean goiz eta txukun (AIA-009/011)

Aiatik Erreenteriara joaten zen pentsu bila goizean goiz. Haraino iristeko zer bide egiten zuen azaltzen du. Goizean txukun ateratzen zen etxetik.

30. Lehengo bizimoduaren abantailak (AIA-009/013)

Bizitza gogorra zen lehengoa, baina inbidia gutxiago eta konfiantza gehiago zegoen. Lehen gehiago laguntzen zitzaion elkarri.

31. Beti laguntzeko prest (AIA-009/014)

Lehen elkarri gehiago laguntzen zitzaion. Auzolanak noiz izaten ziren azaltzen du: bero handia egiten bazuen ere, laguntzeko beti prest.

32. Aita eta semeak erretzaileak (AIA-009/019)

Antonioren aita erretzaile amorratua zen; haren anekdotak kontatzen ditu. Hari ikusita, hiru semeak erretzaile izan ziren gerora.

33. Okindegian lan egiten zueneko garaia (AIA-009/027)

Okindegian aritu zen lanean ezkondu arte. Han zer zeregin eta lan-baldintza izaten zituen azaltzen du. Garai hartan ez zuen lotarako denbora askorik izaten.

34. Baserriko bizimodua eta zereginak (AIA-010/003)

Senideen artean 2 mutil eta 4 neska ziren. Mutilek eta neskek zeregin desberdinak izaten zituzten etxean. Orduko bizimoduaz eta lanez hitz egiten du.

35. Baserrian eta fabrikan lanean (AIA-010/004)

35 urte inguru zituela, San Pedro auzoan fabrika jarri zuten eta hara joan zen lanera. Bitartean, hala ere, baserriko lanetan ere jarraitu zuen.

36. Bide berriek asko erraztu zuten komunikazioa (AIA-010/006)

Lehen bide txarrak zeuden Aia inguruan: lur-bideak, estuak... Gerora bideak berriro zituzten eta horrek asko erraztu zuen haietatik igarotzea. Beraien baserri inguruan zer baserri zeuden aipatzen du.

37. Ezkongabeak lehen eta orain (AIA-010/008)

Lehen mutilizahar eta neskazahar esaten zitzaaien 33 urtetik gorako ezkongabeei. Adinari buruzko gogoetak egiten ditu.

38. Lanaren garrantzia lehen eta orain (AIA-010/010)

Gurasoak baserri bizi ziren. Lanaren garrantziari buruzko gogoetak aipatzen ditu.

39. Tiragomarekin jolasean (AIA-010/014)

Tiragomarekin jolasean aritzen ziren. Tiragomak beraiek egiten zituzten, nola azaltzen du. Etxera etortzean, lanean aritu behar izaten zuten.

40. Umetako "zigarroak" (AIA-010/015)

Jaietan "zigarroak" erretzen aritzen ziren ezkutuan.

41. Dantza mota bakoitzerako garaia eta lekua (AIA-010/018)

Lehen soinu-jotzaileek solteko piezak jo behar izaten zituzten normalean, eta iluntzean lotuak. Ganbara batzuetako lurra oso egokia izaten zen dantzarako, lurra bera pixka bat mugitu egiten baitzen.

42. 8 egun soinua jotzen ibili zenekoa (AIA-010/019)

Mariano hainbat lekutan ibili izan da soinua jotzen; leku haietako batzuk aipatzen ditu. Behin 8 egun jarraian egon zen soinua jo eta jo. Han ondo eman zioten jaten.

43. Zopa isil-isilik jaten (AIA-010/023)

Egun baterako zopa egiten zutenean, hurrengo egunerako hondatuta egoten zen; izan ere, ez zegoen hozkailurik eta beroa egiten zuen kanpoan. Hala ere, denek isil-isilik jaten zuten.

44. Ikusten ez den emakumeen lana (AIA-010/026)

Emakumeek lan gehiago egin behar izan dute baserrian, etxeko martxaz ere beraiek arduratu izan baitira.

45. Neska-festako jornala (AIA-010/029)

Neska-festan behin neskek eman zioten Marianori jornala soinua jotzeagatik. Diru hura nondik ateratzen zen azaltzen du.

46. Soinu-jotzailea mahai gainean (AIA-010/041)

Soinu-jotzailea mahai gainean egoten zen soinua jotzen. Behin izan zuten sustoa, motorrak mahai hura jo baitzuen; baina ez zen ezer gertatu. Mahai gainetik dena ikus zezakeen Marianok.

47. Zerua eta infernuari buruzko gogoeta (AIA-010/050)

Zerua eta infernuari buruzko gogoeta egiten du.

48. Soinuarekin jotako kanta (I) (AIA-011/002)

Kanta bat jotzen du soinuarekin.

49. Soinuarekin jotako kanta (II) (AIA-011/004)

Kanta bat jotzen du soinuarekin.

50. Soinuarekin jotako kanta (III) (AIA-011/006)

Kanta bat jotzen du soinuarekin.

51. Soinuarekin jotako kanta (IV) (AIA-011/008)

Kanta bat jotzen du soinuarekin.

52. Senide ugari miseria garaian (AIA-013/005)

8 senide ziren etxean; garai hartan normala zen hainbeste senide izatea, nahiz eta miseria izan. Anai-arrebak bizimodua aurrera ateratzeko nola moldatzen ziren azaltzen du. Gerrak, baina, egoera okertu egin zuen.

53. Anaien arteko gerra (AIA-013/006)

Anaia zaharrenak gerrara joan ziren, bakoitza bando batera. Gerran, anaia bat preso zegoela, beste anaiari haren guardia egiten aritzea tokatu zitzaion.

54. Gerra ostean gosea eta erdara (AIA-013/007)

Gerra ostean miseria etorri zen, gabezia handia. Kanean gosea pasa zuten, dirua edukita ere ez baitzegoen erosteko ezer. Garai hartan eskolan ibili ziren beraiek, eta erdaraz egin behar izaten zuten, nahiz eta ez jakin euskaraz besterik.

55. Garia erein eta entregatu egin behar (AIA-013/009)

Lehen garia ereiten zuten baratzean, lan handia ematen bazuen ere; auzolanean lantzen zuten. Garai batean eskuz jotzen zen garia, baina gerora makinak etorri ziren. Gerra ostean, garia eta babarrunak entregatu egin behar izaten ziren; askotan, baina, jenero hura biltegietan alferrik galtzen zen.

56. Errotak ezkutuan lanean eta kontrabandoa (AIA-013/010)

Gerra ostean, errotak itxita egon ziren eta horregatik kontrabandora jo zuen jende askok. Guardia zibilekin askotan tratua izaten zuten errotariak, inspektoreek ikus ez zezaten errotek gauzez lan egiten zutela.

57. Ganaduan eta ukuiluetan egindako hobekuntzak (AIA-013/012)

Baratzeko lanak egiteko idia erabiltzen zuten; orduko behiak kalitate txarrekoak ziren, orain baino askoz esne gutxiago ematen zuten. Behiek gaitzak izaten zituzten, garbitasunik ez zegoelako. 1960 aldera aldundiak dirulaguntzak eman zituen ganadua eta ukuiluak berritzeko, eta onura handia ekarri zuen horrek.

58. Baserriaren beherakada (AIA-013/013)

Baserrian onura handiak egon ziren, baina orduan jendea industrian hasi zen lanean; horrek baserriaren beherakada ekarri zuen. Baserriari esker egon izan da euskara bizirik orain arte. Herri handietan erdara egiten zen, kanpoko jende asko etorri baitzen haietara lanera.

59. Baserritarrei burla egiten zitzaaien (AIA-013/015)

Baserritarrei burla egiten zitzaaien. Baserritik kalera lanera joaten zirenek nahiago izaten zuten erdaraz hitz egin; herri txikietako jendeari lotsa ematen zion nongoa zen esateak. Orain egoera aldatu egin da.

60. Mendiak lehen garbi-garbi (AIA-013/017)

Lehen ganaduarentzako jatena prestatzeko, mendia garbi-garbi egoten zen, belarra moztuta. Hartarako lur onenak erabiltzen ziren. Gerora, aldatu egin da sistema hori.

61. Esnea saltzeko egiten ziren tranpak (AIA-013/021)

Behietatik lortzen zuten esnea saldu egiten zuten. Lehen esnea gaur baino hobeto ordaintzen zen. Batzuek tranpa egiten zuten eta ura botatzen zioten esnari, horrela gehiago saltzeko; beste batzuk, ordea, inspektorea engainatzeko, ganaduaren pixa botatzen zioten.

62. Andatzarrateko erietxea (AIA-013/023)

Garai batean tisia oso zabaldua egon zen; Andatzarraten erietxea egon zen halako gaixoentzako. Erietxe hari buruz hitz egiten du: berandu konturatu ziren erietxearen kokapenak kalte egiten ziola bertako gaixoei.

63. Andatzarrateko erietxea oroitzeko monolitoa eta ekitaldia (AIA-013/025)

Andatzarrateko erietxearen oroimenez monolitoa jarri zuten; ekitaldi horretarako Joxe Marik bertso batzuk idatzi zituen. Erietxearen argazki batzuk erakusten ditu.

64. Andatzarrateko erietxeari buruzko bertsoak (AIA-013/026)

Joxe Marik hainbat bertso idatzi zituen Andatzarrateko erietxea itxi zeneko 50. urteurrenean egindako omenaldirako; abestu egiten ditu.

65. Tisia kutsatzeko beldurra (AIA-013/028)

Tisiko asko gazteak ziren. Garai hartan tisiaren erremedioa birika kentzea izaten zen. Gaitz gogorra eta kutsakorra zen. Tisia zegoen garaian, Zarauzko zinea itxi egin zuten, beldur handia baitzegoen kutsatzeko.

66. Andatzarrateko ile-apaintzailea (AIA-013/031)

Aian bazegoen ile-apaintzaile bat bezero ugari zituena; Andatzarrateko gaixoeekin lanean hasi zenean, baina, bezero haiek galdu egin zituen, jendeak kutsatzeko beldurra baitzeukan. Ile-apaintzailea ez zen gaixotu.

67. Lehengo orrazkera eta janzkera (AIA-013/032)

Aian gizonentzako ile-apaindegia zegoen lehen. Mutilen orduko orrazkera nolakoa izaten zen azaltzen du. Txapela, blusa eta abarkak janzten zituzten lehen.

68. Ebaristo eta Don Ebaristo (AIA-013/033)

Lehen sendabelarrak erabiltzen ziren. Ebaristo Arruti zen lehengo petrikiloa: pertsonak eta animaliak sendatzen zituen; baina medikuek ez zuten aintzat hartzen. Medikua izena ere Ebaristo zen, baina hari Don Ebaristo deitu behar izaten zitzaion.

69. Ebaristoren sendabideak (AIA-013/034)

Behin Don Ebaristo medikuaren familiarteko batek erlakiztena izan zuen; Ebaristo petrikiloari esker sendatu zen azkenean.

70. Bizkarreko tiroa Ebaristok sendatu zionekoa (AIA-013/035)

Joxe Marik 10 urte inguru zituela, aitak nahi gabe tiroa eman zion bizkarrean; Ebaristok sendatu zuen orduan enplastoak jarrita. 1956ko elurte handia hil zen Ebaristo.

71. Erlakiztenak umetan (AIA-014/002)

Erlakiztenei buruz hitz egiten du. Joxe Mari lagun batekin zegoen; eta lagunak erlakiztenak zeuzkan; gereziak jaten ari zirela izandako anekdota kontatzen du.

72. Erlakiztena soldadutzan ere (AIA-014/003)

Joxe Marik soldadutzara joan behar izan zuenean, begi ondoan atera zitzaion erlakiztena.

73. Antrax eta hura sendatzeko bideak (AIA-014/004)

Antrax lehen ohiko gaixotasuna zen. Eskaleak lehen maiz etortzen ziren baserriz baserri; eta eskale haietako batek antrax izan zuen. Nola sendatu zen azaltzen du.

74. Lehengo gaitzak gaur ez (AIA-014/005)

Antrax gaixotasuna erlakiztena baino gaitz gogorragoa omen zen. Lehen gaitz asko zegoen, gaur egun ez dagoena. Haietako batzuk aipatzen ditu: gorria, kukuts-etzula...

75. Osasunen zorte txarra umetan (AIA-014/006)

Joxe Marik gaztetan zorte txarra izan zuen osasunean: 7 urterekin, gorria izan zuen; 9 urterekin, tiro batek bizkarrean harrapatu zion; 20 urterekin, tximistak jo zion. Tximistak jo zioneko eguna gogoan du: ozta-ozta salbatu zen, urdaila oso kaltetuta gelditu zitzaion, nola-hala sendatu zen...

76. Zuhaitzak botatzeko: hostoa eta ilargia (AIA-014/012)

Arbolak botatzeko, zenbait arau betetzen ziren lehen; ilargiari begiratzen zitzaion, hosto motaren arabera, zuhaitza noiz bota erabakitzeke. Lehendik hona, asko azkartu dira zuhaitzak botatzeko metodoak.

77. Naturaren denbora errespetatzearen garrantzia (AIA-014/014)

Lehen, zuhaitza botatzeko, ilargiari begiratzen zitzaion. Garai txarrean botaz gero, pipiak jotzen zuen egurra, eta hondatu egiten zen. Lehen, egurra lantzeko prozesua patxadaz hartzen zuten; gaur egun, ordea, presa da nagusi.

78. Lehen, presarik ez, eta zeukatenarekin konforme (AIA-014/015)

Lehen, txekor txikiagoak izanda ere, naturalagoak izaten ziren. Konformismo gehiago zegoen lehen, eta zegoenarekin moldatzen ziren.

79. Nesken arteko azpikeriak (AIA-014/017)

Lehen, neskek maiorazkoekin saiatzen ziren ezkontzen. Nesken artean inbidiak eta azpikeriak izaten ziren. Horrelako kasu bat kontatzen du.

80. Maiorazkoaren etxeko elkarbizitza (AIA-014/018)

Maiorazkoa batzuetan neska izaten zen, anaiak maiorazkoa hartu nahi ez bazuen. Askotan, baserri giroan, errainarentzat izaten zen bizimodu gogorrena. Izan ere, maiorazkoaren ama eta arrebak izaten omen ziren okerrenak elkarbizitzarako. Ama-alaben arteko elkarbizitzaz hitz egiten du.

81. Baserriko lanak eta tresnak (AIA-014/020)

Joxe Mari etxeko senide txikiena izan zen. Orduko bizimoduaz hitz egiten du. Itulan aritu behar izaten zuen eta oso aspergarria iruditzen zitzaion lan hura. Baserriko lanetako teknikak, tresnak... aipatzen ditu.

82. Maisuaren pikarokeria (AIA-014/021)

Joxe Marik baserriko lanetan aritu behar izaten zuen; baina, hala ere, izaten zuen eskolara joateko denbora. Eskolako oroitzapenak gogoan ditu. Behin maisu bizardun bat izan zuten, zakurra ekartzen zuen eskolara. Maisuak liburuarekin izandako anekdotak kontatzen ditu.

83. 'Cara al Sol' (bertsio "berezia") (AIA-014/025)

Bazen tipo bihurri bat, kartzelan izandakoa. Kartzelan, Cara al Sol abestera derrigortzen zituzten; bere bertsoa abesten zuen hark.

84. Kartzelatik ihes egin nahi izanaren ondorioak (AIA-014/028)

Behin, bikote bat kartzelara eraman zuten, gizon bat hiltzen saiatu izanagatik. Garai hartan, Joxe Mariren anaia preso zain zebilen Ondarretan. Bikoteko gizonak ihes egin zuen kartzelatik; baina harrapatu egin zuten. Orduan, tantaren tortura ezarri zioten.

85. Gerrako injustiziak (AIA-014/030)

Gerra garaia gogoan du, hiru urte eta erdi bazituen ere. Orduko oroitzapenak kontatzen ditu: soldaduak, familiaren estutasuna, soldadu zaurituak hil egin zituztela...

86. Gerran, anaia kartzelan 38 hilabetez (AIA-014/031)

Anaia gerran harrapatu egin zuten, eta 38 hilabete eman zituen kartzelan. Astero, etxetik arrautzak bidaltzen zizkioten kartzelara, han gosea baitzegoen. Garai hartan, epaiketarik gabe hiltzen zituzten gizonak kartzelan.

87. Errazionamenduko txistea (AIA-014/038)

Gerra ostean, errazionamendua etorri zen; abertzaleei janari gutxiago ematen zieten. Errazionamenduko txistea kontatzen du.

88. Ogia lortzeko hainbat modu (AIA-019/009)

Gerra ostean, errotara ezkutuan joaten ziren gauez. Ogia egiteko, etxetik kilometro batera joaten ziren, hartarako labea baitzegoen han. Gerora, Zarauztik ekartzen hasi ziren ogia, bi okindegitatik. Ogia ordaintzeko, babarruna ematen zen trukean.

89. Aiako taxilariak (AIA-019/013)

Lehen taxilariak bazeuden: bat Zarauzkoa eta bestea Adunakoa. Adunako taxilariari asko gustatzen zitzaion Aiara etortzea, giro ona baitzegoen festa hasten zenetik bukatzen zen arte. Taxilari hark soinua jotzen zuen.

90. Kanuako terrazako giroa (AIA-019/015)

Kanua jatetxean terraza handia zegoen, eta plazako giroa bukatzen zenean, terrazan jarraitzen zuten festan. Lehen ez zeukaten argazkirik ateratzeko ohiturarik, hartarako aparaturik ere ez zuten eta.

91. Gerra Aiara iritsi zeneko oroitzapen tristekak (AIA-019/019)

Gerra hasieran, ez zuten beldurrik pasa; gerora, ordea, bai. Nazionalak Aian sartu zirenean, Aiako udaletxeko idazkaria jipoitu zuten; gazte batzuk kanposantuan hil zituzten.

92. Apaizaren nahigabea (AIA-019/020)

Gerra Aiara iritsi zenean, 4 apaiz fusilatu nahi izan zituzten; egun bat barkatu zieten azkenean, baina apaizetako bat hil egin zen nahigabeak eta kezkek jota.

93. Zorrak ez ordaintzearen egindako jukutriak (AIA-019/022)

Gerra gaiztoentzat garai ona izan zen: batzuek, zor zutena ez ordaintzearen, dirua utzi ziona salatu eta hil egiten zuten. Horren gaineko anekdota kontatzen dute.

94. Anaia gerran hil zitzaien (AIA-019/023)

Gizon bat garo artean hilda topatu zutenekoa gogoan dute. Anaia gerran hil zitzaien, mina bat zapaldu eta odolustuta. Anaiaren gorpuaren bila apaiza eta komandantea joan ziren. Gerrara ez joatearren, badira atzerrira ihes egin zutenak.

95. Lehen dena bekatu, bereziki emakumeentzat (AIA-019/024)

Lehen konfesioa hartzea oso garrantzitsua zen. Emakume gazteak errazago joaten ziren konfesatzera mutil gazteak baino. Orduko apaiz bati buruz hitz egiten dute. Lehen dena zen bekatu: mutilek "gaizki pentsatzea" emakumeen bekatua zen.

96. Umetako bihurrikeriak (AIA-019/026)

Gaztetan egindako bihurrikeriak kontatzen dituzte: biraderari (manibelari) eraginda funtzionatzen zuen kotxea geldiarazten zuten, aranak lapurtzen zituzten... Behin pilotan jokatzeko ari zirela mutil batek besteari nahi gabe muturrekoa eman zioneko anekdota kontatzen du Ignaziok.

97. Umetako jolasak (AIA-019/027)

Umetako jolasak aipatzen dituzte: pilota, bizkar-saltoa, kanikak... Kanikak lehen nolakoak izaten ziren azaltzen dute.

98. Sokasoltoko kanta eta ziba (AIA-019/029)

Zibarekin ibiltzen ziren jolasean umetan. Sokasaltoan aritzen zireneko kantak abesten dituzte. Sokasoltoko giroa nolakoa izaten zen azaltzen dute.

99. Monacoko printzeak bezalaxe (AIA-019/031)

Ignazio ezkondu zen egun berean, Monacoko printzeak ezkondu ziren; semea izan zuten egunean ere, Monacoko printzeek alaba izan zuten. Gutuna idatzi zieten printzeei hori kontatzen. 5 seme-alaba izan zituzten Ignaziok eta emazteak, baina Ignazio gazte alargundu zen; orduan arriben laguntza izan zuen umeak hazteko.

100. Kafea prestatzeko moduak lehen (AIA-019/044)

Lehen kafea nola presatzen zen azaltzen dute. Pattarra edaten zuten lehen ere.

101. Ukuiluko ganbaratik erori zen gizona (AIA-019/045)

Behin Aiako gizon bat ukuiluan ganbaratik behera erori zen. Orduko anekdotak kontatzen dituzte.

102. Mari Ixabel kuartelera eraman zutenekoa (AIA-019/046)

Aian tratu ona izan zuten guardia zibil batzuekin, baina beste batzuekin ez. Behin Mari Ixabelek guardia zibilekin izandako komeriak kontatzen ditu.

103. Guardia zibilen kilimak (AIA-019/049)

Lehen borroka gehiago izaten ziren herrian. Behin batek tiroa bota zueneko gogoan dute: guardia zibila inguruko gizonen artean hasi zen bilatzen nork bota ote zuen tiroa, eta haietako batek kilimak izan zituen.

104. Txoriak harrapatzeko teknikak (AIA-019/051)

Txoriak harrapatzeko zenbait teknika azaltzen ditu.

105. Ignazioren bihurrikeriak (AIA-019/053)

Ignaziok egindako bihurrikeria batzuk aipatzen ditu.

106. Anai-arreben arteko bihurrikeriak (AIA-019/054)

Etxean anai-arreben artean egindako bihurrikeria kontatzen dute.

107. Lertxundiberri baserriko maizter (AIA-020/003)

Elkano auzoko Lertxundiberri baserrian jaio zen; bere familia maizter zen han eta 1958 inguruan erosi zuen baserri hura. Ordura arteko errenta nola ordaintzen zuten azaltzen du.

108. Ura lortzeko eta aprobetxatzeko moduak (AIA-020/005)

Ura iturritik ekartzen zuten, etxean ez baitzeukaten. Ura nola aprobetxatzen zuten azaltzen du. Dutzatu nahi izanez gero, erre kara joaten ziren.

109. Garia biltzeko prozesua (AIA-020/008)

Garia oso garrantzitsua zen lehen, harekin ogia egiten baitzuten. Elkanoko San Pedro festak pasa ondoren hasten ziren garia ebakitzen. Garia nola biltzen zuten azaltzen du.

110. Garia bildu eta metak egiten (AIA-020/009)

Garia bildutakoan, metatan pilatzen zituzten soroan. Metak nola egiten zituzten azaltzen du.

111. Garia jotzeko makina (AIA-020/010)

Garia ganbaran jasotzen zuten geroago jotzeko. Garia jotzeko makinak nola funtzionatzen zuen azaltzen du. Istripuak gertatu izan dira makina horrekin, eta bati baino gehiagori moztu behar izan diote besoa.

112. Besoa moztu beharra (AIA-020/012)

Hainbat laguni besoa moztu behar izan zieten, istripua izan baitzuten garia jotzeko makinarekin. Kasu horietan, ospitalera eraman behar izaten zituzten. Harako bidea egin bitartean, zauria nola zaintzen zuten azaltzen du. Ospitalera joateko garraioak aipatzen ditu.

113. Eskalearen habian etzatearen arriskua (AIA-020/015)

Tifusa egon zen garaian, amak errieta galanta egin zion Markosi, tifusarekin kutsatzeko arriskuan egon baitzen: eskale batek lo egindako lekuan etzan zen.

114. Konfiantzako eskaleak (AIA-020/016)

Lehen eskaleak atez ate ibiltzen ziren, eta oso ezagunak izaten ziren familian; konfiantza handia izaten zuten haiekin.

115. Pello Bixente eskalearekin izandako tratua (AIA-020/017)

Beraien etxera Pello Bixente eskalea etortzen zen eta egurra txikitzen aritzen zen. Harekin izandako anekdotak kontatzen ditu.

116. Eskaleak gehienez astebete leku berean (AIA-020/018)

Eskaleei ez zitzaion gustatzen etxe batean denbora luzez egotea, astebete ematen zuten gehienez. Beraien etxera Pello Bixente etortzen zen eta harekin izandako anekdota kontatzen du.

117. Eskaleen osasun ona eta sendoa (AIA-020/020)

Osasun ona zuten Elkanon ibiltzen ziren eskaleek: bizitakoak bizi eta gero ez ziren gaixotzen. Irabazitako dirua gozokiak erosteko erabiltzen zuen Pello Bixente eskaleak.

118. Estraperloko kontu tristeak (AIA-020/025)

Estraperloari buruz irakurritakoak kontatzen ditu: guardia zibilek gazte bat hil zutela Nafarroatik irina zekarren batean; gazteak nola moldatzen ziren Lizarrustiko aldapa igotzeko...

119. Erromeriak eta korrika-saioak (AIA-020/027)

Gaztetan oso azkarrak ziren eta batetik bestera oinez joateko ohitura zuten. Orduko anekdotak kontatzen ditu. Lehen erromeriak lauretan hasi eta iluntzean bukatzen ziren.

120. Mugarriaren babesean dantzan (AIA-020/028)

Erromerietan giro ona egoten zen: jende alai eta dantzaria izaten zen. Dantza lotua leku batzuetan debekatua zegoen, baina beste batzuetan ez. Zarautzen libre zenez, Elkanoko mugarriaren alde batean dantzatzen zen eta bestean soinua jo.

121. Zarauzko giroa udan (AIA-020/029)

Zarautzen dantza lotua egitea libre zen; izan ere, Zarauzko giroarekin bat zetorren dantza lotua. Lehen Zarautza jende diruduna etortzen zen; abuztuan egunero izaten zen musika-giroa...

122. Dantza lotua egitea delitu (AIA-020/030)

Aiako apaizak egindakoa kontatzen du: dantza lotua egiteagatik hainbat gazte zigortu zituzten; isuna ordaindu ez zutenak kartzelan sartu zituzten.

123. Bekatuaren indarra pixkanaka galtzen (AIA-020/032)

Azpeitiar batzuk kartzelara eraman zituzten dantza lotua egiteagatik. Lehen apaizak, alkateak eta guardia zibilak indar handia zuten. Indar hori ahuldu egin zen pixkanaka: jendeak gehiago ikasi zuen heinean, menderatu egin zen botere hura. Lehengo sermoiekin jendeari beldurra sartzen zitzaion. Bekatu egiteko beldurra zegoen Aian.

124. Eskutik hartzea bekatu (AIA-020/033)

Garai batean, neska-mutilek elkar ukitzea bekatu zenez, bikote batek zapi baten bidez ematen zioten eskua elkarri.

125. Ikasketen eta lanaren garrantzia lehen eta orain (AIA-020/037)

Lehen eskolari ez zitzaion garrantzi handirik ematen; balio gehiago zuen orduan lanean ikasteak. Gai horri buruzko iritzia ematen du.

126. Frantziako lana eta desengainua (AIA-020/039)

Frantzian basoko lanak egitera joan zen Markos bere bi lagunekin. Han hizkuntzarekin izandako anekdota kontatzen du. Hara joateko erabakia diru gehiago irabazten zelakoan hartu zuten, baina engainatu egin zituzten azkenean. Hango lanei eta lan-baldintzei buruz hitz egiten du.

127. Alaba bakarra izanda, ardura asko izandako umetatik (AIA-024/003)

5 senideren artean, Maria zen neska bakarra eta lan asko egin behar izan zuen. Eskolara joan beharrean, anaia txikiena berak hazi zuen hark 2 hilabete zituenetik. Orduko lanak aipatzen ditu. Umea zaintzeko hainbat lan izaten ziren: jantzi, garbitu...

128. Astelehen konpletoak (AIA-024/004)

Lehen xaboia etxean egiten zuten olioarekin eta seboarekin. 11-12 urte zituenetik, Mariak astelehenetan putzura joan behar izaten zuen arropa garbitzera. Arropa nola eramaten eta garbitzen zuten aipatzen du.

129. Zarauzko merkatura astoarekin (AIA-024/011)

13 21 Zarautza eta Oriora askotan joaten zen Maria baserriko jeneroa saltzera. Beraien baserrian 100 gurdi sagar betetzen zituzten. Zarauzko plazan izaten zen merkaturia eta astotegia handik gertu zegoen, astoak bertan uzteko.

130. Bidean ilunpetan badaezpada ere (AIA-024/012)

Zalgurdiak nolakoak ziren azaltzen du. Maria ilunpetan joaten zen bidetik, astoak bazekien bidea; beldurra izaten zuen bidean norbaitek eraso egingo ote zion. Behin ijitoak azaldu zitzaizkion bidean.

131. Anaiak anaiari behatza moztu zionekoa (AIA-024/014)

Lehen orain baino gutxiago jotzen zuten medikuarengana. Behin Mariaren anaia batek besteari behatza moztu zion aizkorarekin, eta orduan ere ez ziren medikuarengana joan.

132. Tifusaren aurkako neurriak (AIA-024/016)

Lehen tifus asko izaten zen eta oso kutsakorra zen. Hilketxak egiten zituen arotzaren emaztea tifusak kutsatuta hil zen. Tifusa sendatzeko, gaixoei ez zitzaaien urik ematen lehen. Tifusa zuen gaixoa pertsona bakarrak zaintzen zuen.

133. Pneumonia lehen (AIA-024/017)

Lehen jende asko hiltzen zen pneumoniagatik; odola ateratzen zen pneumonia sendatzeko.

134. Zaurian lixiba bota (AIA-024/019)

Igande batean anaiak hanka azpia ebaki zuen segarekin. Mariak orduan lixiba bota zion zaurian, eta min handiak izan bazituen ere, handik sendatu zen anaia.

135. Tropak Aiara iritsi zireneko beldurra (AIA-024/022)

Gerra aurrea ezagutu zuen, eta gogoan du nazionalak Aiara iritsi zirenekoa: kalean zen eta, soldaduen tropa iristen ikusi zuenean, beldur izugarria pasa zuen.

136. Gerra ostean goseari aurre egiten (AIA-024/025)

Gerra ostean goseari nola-hala egin zioten aurre. Esnegaina erabiltzen zuten olioaren ordeaz. Orduan zer jaten zuten azaltzen du.

137. Su baxua, taloak eta estraperloa (AIA-024/027)

Su baxua nolakoa zen eta han lan egiteko zer material erabiltzen ziren azaltzen du. Irinik ez zegoen garaian, taloak jaten zituzten. Gerra ostean, estraperloan ibili behar izaten zuten.

138. Urkiolara joateko ohitura (AIA-024/029)

Urkiolara joateko ohitura umetatik izan du, Mariaren aita urtero joaten baitzen hara. Haraino iritsi arte zer bide egiten zuten kontatzen du. Urkiolan meza entzun eta promesa egiten zuten.

139. Komunioko soineko arrosa (AIA-024/032)

Mariak gerra garaian egin zuen komunioko; soineko arrosa eraman zuen. Soineko hura nolakoa zen azaltzen du.

140. Gaztaina: gaitza eta jateko ohitura (AIA-024/038)

Gaztainak (zuhaitzak) gaitza izan zuen, eta galdu egin zen hemen inguruan. Lehen gaztaina asko jaten zen; nola prestatzen zen azaltzen du.

141. Anaiari tximistak jo zionekoa (AIA-024/040)

Mariaren anaia bat postearen kontra zegoela, tximistak jo zion. Inguruan zeudenek astindu egin zuten eta horregatik salbatu zen.

142. Tximistatik babesteko moduak (AIA-024/042)

Tximistorratza jarri aurretik, tximistatik nola babesten ziren azaltzen du: kandela bedeinkatuak piztu, erramu bedeinkatua erre...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com